

ARRANTZALEA ETA SIRENA

Larraitz Olazabal

Balmaseda

Kostaldeko herri batean, Martin deituriko arrantzale agurea bizi zen.

Bertako kaian, sirena baten estatua zegoen. Arrantzaleak han ematen zituen orduak eta orduak, estatuaren alboan eserita. Hau dela-eta, batzuek erotuta zegoela pentsatzen zuten.

Egun batean, mutil bat kaitik zebilen, eta agurea ikusi zuen. Mutilak Eneko izena zuen. Mutikoaren aita arrantzalea zen, eta bera ere lanbide hori ikasten ari zen. Oso mutil jatorra eta erakargarria zen, horregatik herriko neska guztiak atzetik zeuzkan.

Enekok Martin sirenari hitz egiten ikusi zuen, eta galdera bat egin zion:

—Nor da sirena hori eta zergatik hitz egiten diozu?

—Sirena hori neure bizitza da —erantzun zuen harro gizonak.

Momentu hartan, Enekoren aita heldu zen, eta mutilak alde egin zuen.

Arratsaldean, gaztea kaira bueltatu zen. Agurea, Eneko ikusi zuenean, altxatu eta istorio bat kontatzen hasi zitzaion.

Duela urte asko, Martin deitzen zen mutiko bat herri hartan bizi omen zen. Aita arrantzalea zuen, eta berarekin lan egiten zuen.

Behinola, itsasertzean zegoen, sareak josten, eta itsasora begiratu zuenean inoiz ikusia zuen neskarik ederrena begiztatu zuen Martinek. Neska gaztea zen; haren azala elurra bezain zuria zen, begi urdin distiratsuak zeuzkan eta ile marroi iluna zuen. Buru-aurregiak baino ez zeuzkan agerian. Bi gazteon begiradak gurutzatu zirenean, neska desagertu egin zen.

Hurrengo egunean, Martin leku berera itzuli zen, eta neska hura ikusi zuen, urrunean, harkaitz artean. Hantxe zegoen, eserita ilea orrazten. Soineko zuri luzea zeraman, eta zinta urdina zeukan ileetan. Martin igerian joan zen harkaitz-tarte hartaraino, baina neskak, beldurtuta, bere burua uretara bota zuen, berehala desagertuz.

Handik aurrera, mutilak ezin izan zuen neska hura burutik kendu ere egin.

Egun batzuk eman zituen itsasoan aitarekin lan egiten, eta bueltatu bezain laster, neskaren bila joan zen. Zortea izan zuen eta neskak ez zion ihes egin... Martin hizketan hasi zitzaion, eta neskak ulertu ez arren, irribarre egin zion. Orduan, mutilak zintzilikario bat poltsikotik atera eta neskari lepoan jarri zion.

Mutila guztiz maiteminduta zegoen; harrezkeroztik elkar ikusten zuten arroketan. Eskutik helduta, ordu luzeak ematen zituzten elkarri begira, eta neska arroketatik joaten zen bakoitzean, musu ematen zion batak besteari.

Egun batean, Martin aitarekin, eta herriko beste arrantzaleekin batera, itsasora atera zen arrantza egitera. Astebete eman behar zuen kanpoan; oso triste zegoen, ez zuelako neska ikusiko...

Hiru egun zeramatzan itsasoan, eta sareak botata zeuden. Gehienetan bezala, egun horretan ere arratsaldean hartu zituzten, baina arrainez gain, han neska bat harrapatuta zegoen, negar batean gajoa!

Martin korrika joan zen hura askatzera; baina zaurituta zegoela konturatu zen.

Gainontzekoek sirena zenik ezin sinetsi!

Martinek egunak eman zituen neska zaintzen, ez zuen hobera egiten, ordea. Nahiz eta gaizki sentitu, beti irribarre egiten zion mutilari.

Egunak pasatu ziren, baina neskak gaizki jarraitzen zuen.

Arratsalde batean, Martin besarkatuz, hil egin zen.

Urteek aurrera egin zuten, baina arrantzalea ez zen inoiz beste emakume batekin maitemindu. Nahikoa dirurik bildu zuenean, kaian sirena baten estatua eraikitzeko agindu zuen.

Ordutik aurrera, hantxe igarotzen ditu egunak, bere maitearen ondoan.

Martinek istorioa kontatzen bukatu zuenean, poltsikotik zintzilikarioa atera eta Enekori eman zion.